

>>>

elkartu

Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten
Pertsonen Federazio Koordinatzailea
Federación Coordinadora de Personas
con Discapacidad Física de Gipuzkoa



HEZKUNTZA

DESGAITASUNA
DUTEN PERTSONEN
ESKUBIDEEI BURUZKO
KONBENTZIOA

HEZKUNTZA INKLUSIBOARI
BURUZKO 4. OHAR
OROKORRA

AURKIBIDEA

4 or.

01

ZER DA
KONBENTZIOA?

8 or.

02

ZER DIRA OHAR
OROKORRAK?

10 or.

03

DESGAITASU-
NA DUTEN PER-
TSONAK ETA
HEZKUNTZA ES-
KUBIDEA. TES-
TUINGURUA

12 or.

04

HEZKUNTZA
INKLUSIBORAKO
ESKUBIDEARI
LOTUTAKO
KONTZEPTUAK

16 or.

05

HEZKUNTZA
INKLUSIBORAKO
ESKUBIDEAREN
EDUKIA

22 or.

06

ESTATU KIDEEN
BETEBEHARRAK

24 or.

07

BESTE ESKUBIDE
BATZUEKIKO
ZEHARKAKOTA-
SUNA

27 or.

08

HEZKUNTZA
INKLUSIBOAREN
ESPARRUAN
NEURRIAK
APLIKATZEKO
GAKOAK

01

ZER DA KONBENTZIOA?



Desgaitasunaduten pertsonen eskubideei buruzko nazioarteko konbentzioa 2006ko abenduaren 13an onartu zuten New Yorkeko Nazio Batuen Egoitzan eta 2008ko maiatzaren 3an jarri zuten indarrean, Estatuak sinatu eta berretsi ostean. Horrenbestez, nahitaez betetzekoa da.

Konbentzioak berekin dakartzan berritasunen artean, ondoko hauek nabarmentzen dira:

01

Desgaitasuna giza eskubideekin lotuta dago, izan ere, desgaitasuna duten pertsonak ez dira karitate edo asistentziazko politiken «objektu»; aitzitik, giza eskubideen «subjektu» dira.

02

Desgaitasuna medikuntzaren ikuspuntutik ulertzeko modua gainditzen du –osasun eta asistentzia arloko alderdiak lehenesten ditu horrek–, desgaitasunaren inguruan gizarte-eredu bat ezartzeko, non desgaitasuna urritasunak dituzten pertsonen arteko elkarrekintzaren emaitza baita, gizartean erabat eta eraginkortasunez, besteen baldintza berdinetan, parte har dezatela ekiditen duten jarrera eta ingurunearen ondoriozko hesiak gainditzeko.

03

Desgaitasuna duten pertsonentzat beren autonomia eta independentzia izateak duen garrantzia aintortzen du, erabakiak hartzeko askatasuna barne.

04

Konbentzioak irizten dio desgaitasuna duten pertsonak aktiboki parte hartzeko aukera izan behar dutela politika eta programei buruzko erabakiak hartzeko prozesuetan, beraiei zuzenen eragiten dietenak barne direla.

Konbentzioaren helburua da desgaitasuna duten pertsona guztiek beren giza eskubideak eta askatasuna erabat eta berdintasunez izango dutela sustatzea, babestea eta ziurtatzea, baita haien duintasunarekiko errespetua bultzatzea ere. (1. artikulua).

HAUEK DIRA
KONBENTZIOAK
AITORTZEN
DITUEN
ESKUBIDE
NAGUSIAK:

Berdintasuna eta
diskriminaziorik eza

Bizitzeko eskubidea

Irisgarritasuna

Justiziara iristea

Legeak berdintasunez pertsona
gisa aintzatestea

Pertsonaren askatasuna
eta segurtasuna

Torturaren eta bestelako tratu
edo zigor krudel, anker edo
umiliagarrien aurkako babesa

Esplotazio, indarkeria
eta abusuen aurkako
babesa

Pertsonaren askatasuna
eta segurtasuna

Joan-etorriak egiteko
eta nazionalitaterako
askatasuna

Osotasun pertsonalaren
babesa

Modu independentean bizi eta
komunitatearen kide izatearen
eskubidea

Mugikortasun pertsonala

Hezkuntza

Adierazpen- eta iritzi-
askatasuna, eta informazioa
eskuratzekoa

Pribatutasunaren errespetua

Osasuna

Etxearen eta familiaren
errespetua.


Gaikuntza eta
birgaikuntza

Bizi-maila egokia eta
gizarte-babesa

Lana eta enplegua



Partaidetza bizitza
politikoan eta publikoan

Partaidetza bizitza kulturalean,
jolas jardueretan, aisian eta
kirolean




02

ZER DIRA OHAR OROKORRAK?



Batzordeak desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruz taxututako dokumentuak dira. Aipatu Batzordea Konbentzioaren aplikazioa gainbegiratzeko aditu independenteek osatutako organo bat da, Konbentzioan aitortutako eskubideak argitzeko eta Estatuaren interpretaziorako gida modura baliagarri izan dadin.

Orain arte, Batzordeak Ohar
Orokor hauek egin ditu:



- 1. ohar orokorra (2014) - 12. artikulua: Legeak berdintasunez pertsona gisa aintzatestea
- 2. ohar orokorra (2014) - 9. artikulua: Irisgarritasuna
- 3. ohar orokorra (2016), desgaitasuna duten emakume eta neskatoei buruzkoa
- 4. ohar orokorra (2016), heziketa inklusiborako eskubideari buruzkoa
- 5. ohar orokorra (2017), modu independentean bizi eta komunitatearen kide izatearen eskubidea
- 6. ohar orokorra (2018), berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzkoa
- 7. ohar orokorra (2018), desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzeari buruzkoa, desgaitasuna duten mutiko eta neskatoen barne, horiek ordezkatzan dituzten erakundeekin bidez, Konbentzioa aplikatuz eta jarraitu
- 8. ohar orokorra (2022), desgaitasuna duten pertsonen lana eta enplegua izateko daukaten eskubideari buruzkoa

03

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONAK ETA HEZKUNTZA ESKUBIDEA. TESTUINGURUA



Historikoki, desgaitasuna duten pertsonak gizarte-laguntzen onuradun gisa hartu izan dira, baina, orain, nazioarteko zuzenbideak eskubideen titular gisa onartzen ditu, eta, ondorioz, hezkuntza-eskubidea eska dezakete, diskriminaziorik gabe eta aukera-berdintasunean oinarrituta.

Aurrerapausoak eman badira ere, Batzordea kezkatuta dago, oraindik ere, oinarri-oinarrizko arazoak ez direlako gainditu. Gaur egun, asko dira desgaitasuna duten eta hezkuntza-eskubidea ukatzen zaien pertsonak; beste askok, berriz, hezkuntza-eskubidea izan arren, talde berezietan jasotzen dute, desgaitasuna duten ikasle-taldeetan soilik, eta, halakoetan, ohikoa da hezkuntza-kalitate maila apalagoa jasotzea.

Desgaitasuna duten pertsonak oztupoak dituzte hezkuntza inklusiboa jasotzeko; eragozpen edo traba horiek hainbat faktoreren ondorio izan daitezke, besteak beste:

-  Desgaitasunaren giza eskubideen eredua ez ulertzea. Horren arabera, desgaitasuna duten pertsonen bazterketa komunitateko eta gizarteko oztupoek eragiten dute, eta ez urritasun pertsonalek.
-  Desgaitasuna duten pertsonen aurkako diskriminazioak bere horretan jarraitzen du, eta larriagotu egiten da egonaldi luzeko egoitza-erakundeetan jarraitzen duten pertsonen isolamenduak eta hezkuntza-ingurune orokorretan dauden pertsonenganako konfiantzarik ez dagoelako.
-  Ezagutza eza; hezkuntza inklusiboa ezezaguna da, ez da bere izaera ezagutzen, eta bere abantailak ez dira aitortzen, esaterako, kalitatea edo aniztasuna.
-  Datu-xehaturik ez dago, ez da ikerketarik egin.
-  Hezkuntza inklusiborako eskubidea gauzatzeko borondate politikorik ez dago; ez dago gaitasunik, ezta ezagutza teknikorik ere. Eta, irakasleak ez daude trebatuta.
-  Desgaitasuna duten ikasleak hezkuntza sisteman txertatzeko edota doikuntzak egiteko finantzaketa-mekanismo egokirik ez dago eta ez dira pizgarriak eskaintzen.
-  Eragiten diren eskubide urraketak erreparatzeko baliabide eta mekanismo legalik ez dago.

04

HEZKUNTZA INKLUSIBORAKO ESKUBIDEARI LOTUTAKO KONTZEPTUAK



Hezkuntza inklusiboa hezkuntza-eskubidea eragozten duten oztopoak ezabatzeko prozesu gisa ulertu behar da; prozesuak ez du etenik izan, eta oso dinamikoa izan da. Hezkuntza esparru orotan eragin behar du, besteak beste, kulturen, politiketan edota praktiketan eragiteko; eta, ondorioz, erabateko inklusioa bermatu behar du.

Horregatik, garrantzitsua da jarraian zerrendatzen ditugun kontzeptuen artean bereizketa egitea:

✗ **Bazterketa:** hezkuntza mota edozein izanda ere, zuzenean edo zeharka, sarrera eragozteak edo ukatzea.

✗ **Bereizketa:** desgaitasuna duten ikasleen eta gainontzeko ikasleen artean bereizketa egitea, edota, desgaitasuna duten ikasleak haientzako espreski diseinatutako zentro berezietara bideratzea.



✓ **Inklusioa:** zenbait aldaketa eragingo dituen erreforma-prozesu sistemikoa: aldaketak edukietan, irakaskuntza-metodoetan, ikuspegietan, egituretan eta hezkuntzaren estrategietan. Helburua da oztopoak gainditzeko baliabideak jartzea eta ikasle guztiei ikaskuntza-esperientzia ekitatiboa eta parte-hartzailea bermatzea, euren premiei eta lehentasunei erantzuneko dien ingurune batean.


✓ **Integrazioa:** desgaitasuna duten pertsonen hezkuntza-sisteman txertatzea, gainontzeko ikasleekin, eta, konbentzimendu osoz, hezkuntza-sistemara egokituko direla sinistuz.

Hezkuntza inklusiboaren funtsezko ezaugarriak:

- ➔ **"Sistema guztiak" biltzen dituen ikuspegi integrala:** kultura, politika eta praktika instituzionaletan beharrezkoak diren aldagetak txertatzea eskatzen du.
- ➔ **"Hezkuntza-ingurune integrala":** irakaskuntza eta eskola-guneetan sortzen diren harremanak hartzen dira kontuan: eskola-batzarrak, irakasleen ikuskapena, aholkularitza-zerbitzuak eta arreta medikoa, eskola-txangoak, aurrekontu-esleipenak, desgaitasuna duten eta ez duten ikasleen gurasoekin interakzioa, eta, hala dagokionean, tokiko komunitatea edo publikoa oro har.
- ➔ **"Pertsona guztiak" integratzen dituen ikuspegia:** pertsona orok ikasteko duen gaitasuna aitortzen da, eta, kasu guztietan, espektatibak handiak dira, baita desgaitasuna duten ikasleengan jartzen direnak ere. Hezkuntza inklusiboak ikasketa-plan malguak eta ikasteko zein irakasteko metodoak eskaintzen ditu, ikasteko gaitasun, behar eta estilo desberdinetara egokituta. Hezkuntza-sistema erantzun pertsonalizatuak emateko baliatu behar da, eta, kontrako bidea saihestu behar da, hau da, ikasleak ez du sistemara egokitu behar.
- ➔ **Irakasleei laguntza:** irakasle guztiek, baita zentroko gainontzeko langileek ere, beharrezko hezkuntza eta prestakuntza jasotzen dute ikaskuntza-ingurune inklusiboetara egokitzeko eta oinarrizko balioak zein gaitasunak eskuratzen dituzte. Desgaitasuna duten irakasleak aintzat hartzen dira.
- ➔ **Aniztasuna errespetatzea eta bere balioaren aitortza:** ikasle guztiek eskubide bera dute ikasteko. Ikasle guztiak baloratuta, errespetatuta, barne hartuta eta entzunda daudela sentitu behar dute. Inklusioak ikuspegi indibiduala hartzen du ikaslearekin.
- ➔ **Ikastea errazago egiten duen giroa:** ikaskuntza-ingurune inklusiboak ingurune irisgarriak dira; pertsona guztiak seguru, lagunduta eta estimulatuta sentitzen diren guneak, eta beren iritziak emateko aukera eskaintzen dutenak.
- ➔ **Trantsizio eraginkorrak:** desgaitasuna duten ikasleek laguntza jasotzen dute eskola-ikaskuntzatik lanbide-heziketara eta goi-mailako irakaskuntzara saltoa emateko, edota, lan-mundura modu eraginkorrean gerturatzeko.
- ➔ **Elkarteen aitortza:** desgaitasunaren ikuspegia bere osotasunean ezagutzeko eta ulertzeko gonbitea egiten zaiei elkarte guztiei, ikasleen elkarte eta federazioei, desgaitasuna duten

pertsonen erakundeei, eskola-batzarrei, guraso-elkarteei eta funtzionamenduan dauden eskolako beste laguntza-talde ofizial zein ofiziosoei.


→ **Gainbegiratzea:** desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzearekin egin behar da, ordezkatzen dituzten erakundeekin bitartez, eta desgaitasuna duten pertsonen inklusioaren inguruko adierazleak sortu behar dituzte.



Diskriminatua ez izateko eskubideak bere baitan jasotzen du: banandua ez izateko eskubidea eta arrazoizko egokitzapenak egiteko eskubidea. Eskubide hauek **hezkuntza-ingurune irigarriak eta arrazoizko egokitzapenak betetzeko testuinguruan ulertu behar dira.**

05

HEZKUNTZA INKLUSIBORAKO ESKUBIDEAREN EDUKIA



Desgaitasuna duten pertsonen hezkuntza inklusiboa jasotzeko eskubidea aitortzen zaie, eta, diskriminaziorik gabe eta aukera-berdintasunean oinarrituta bermatu behar da maila guztietan. Eskubidea bizitzako esparru eta adin tarte guztietan bermatu behar da erakunde akademiko publiko eta pribatuetan.

Hezkuntza inklusiborako eskubideak helburu hauek betetzen ditu: (24.1 artikulua)




Giza potentziala, duintasuna eta autoestimua garatzea; eta, giza eskubideekiko, oinarrizko askatasunekiko eta giza aniztasunarekiko errespetua indartzea: hezkuntza inklusiboaren helburuak bere gain hartzen ditu elkarre-kiko errespetua, pertsona ororen balioa sustatzea, eta, hezkuntza-ikuspegiak, hezkuntza-erakundearen kulturak eta ikasketa-planek aniztasunaren balioa isla-tuko duten hezkuntza-inguruneak sortzea.



Desgaitasuna duten pertsonen nortasuna, talentua eta sormena ahalik eta gehien garatzea, baita haien gaitasun mental eta fisikoak ere: desgaitasuna duten pertsonen hezkuntza, gehiegitan, defizitaren ikuspegian zentratzen da, haien muga errealak, edo hautemantakoak, hartzen dira kontuan, aurriritzietan oinarrituak direla kontuan hartu gabe. Beraz, desgaitasuna duten pertsona guz-tien indarguneak eta talentua aprobetxatzeko aukerak sortzen lagundu behar da.



Desgaitasuna duten pertsonen gizarte aske batean eraginkortasunez parte hartzea ahalbidetzea: horretarako, banakako laguntza eta arrazoizko doikunt-zak lehentasunezko gaiak dira, eta dohainik eskaini behar dira derrigorrezko irakaskuntzako maila guztietan.



Hezkuntza inklusiborako eskubideak beregain hartzen dituen helburu horiek lortzeko, ezinbestekoa da bermatzea: (24.2 artikulua):

- * **Desgaitasuna duten pertsonak, izan heldu edo izan haur, hezkuntza-sisteman txertatzea, hezkuntza-sistema orokorrean edo doako derrigorrezko lehen eta bigarren hezkuntzan; ezin dira baztertu desgaitasuna dutelako.** Zuzeneko bazterketa da ikasle jakin batzuk "he-ziezin" gisa sailkatzea da, edo, beste modu batean esanda, hezkuntza-sisteman txertatzeko beharrezko baldintzak betetzen ez dituztela onartzea. Zeharkako bazterketa, berriz, izango litzateke hezkuntza-sisteman txertatzeko baldintza bezala beste ikasleek gainditu behar duten azterketa gainditzera behartzea, arrazoizko egokitzapenik egin gabe eta dagokien laguntza eskaini gabe.
- * **Desgaitasuna duten lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleak, hezkuntza-klusiboa eskuratu ahal izango dute, kalitatezkoa eta doakoa, gainerakoen baldintza berberetan eta bizi diren komunitatean. Honako ezaugarri hauekin:**
 - Bermatutako matrikulazioa: desgaitasuna duten ikasleentzat plazak bermatu behar dira, maila guztietan eta erkidego osoan.
 - Irisgarritasuna: hezkuntza-sistemak irisgarria izan behar du: eraikinak, informazio-tresnak, ikasketa-planak, hezkuntza-materialak, irakaskuntza-metodoak eta ebaluazio-, hezkuntza- eta laguntza-zerbitzuak, eta abar. Hezkuntza-inguruneetan ere arrazoizko egokitzapenak egin behar dira beharrezkoa denean eta kostu gehigarriak eragin gabe.
 - Onargarritasuna: hezkuntzara bideratutako instalazio, ondasun eta zerbitzu guztiak diseinatzean eta erabiltzean, desgaitasuna duten pertsonen beharrak, kulturak, iritziak eta hezkuntzak kontuan hartu eta errespetatu behar dira. Hezkuntza-sistemak pertsona guztien beharrak ase behar ditu.
 - Malgutasuna: ikasketarako diseinu unibertsalaren ikuspegia kontuan hartu eta ikasketa-planen elaborazioak, diseinuak eta aplikazioak ikasle guztien beharrak ase behar ditu, erantzun egokia eman eta behar bezala egokituz. Ebaluazio normalizatuen ordez, ebaluazio-metodo malguak eta anitzak erabili behar dira, eta ikaskuntza-ibilbide alternatiboak eskaintzen dituzten aurrerapenak eta abantailak aitortu behar dira.
- * **Behar indibidualen arabera arrazoizko egokitzapenak egitea: egokitzapena "arrazoizko-tzat" jotzen da, aurrez, eta testuingurua kontuan hartuta, bere garrantzia eta eraginkortasuna neurtzen denean. Doikuntzak honako hauek izan daitezke:** ikasgela baten kokapena aldatzea; ikasgelan komunikatzeko hainbat modu eskaintzea; letra-tamaina handitzea, materialak ematea edota irakasgaiak ematea, edo liburuxkak beste formatu batean eskaintzea;

ikasleen esku oharrak edo interprete bat jartzeaz arduratuko den pertsona bat jartzea edo ikaskuntza- eta ebaluazio-egoeretan teknologia osagarria ahalbidetzea; ikasleei denbora gehiago ematea, zarata-maila murriztea (zentzumen-gainkargarekiko sentsibilitatea), ebaluazio-metodo alternatiboak erabiltzea eta ikasketa-planeko elementu baten ordeaz beste aukera bat erabiltzea. Arrazoizko doikuntza ukatzea diskriminatzea da, eta, doikuntza hori egiteko betebeharra berehala aplikatzekoa da, ez dago arian-arian eraginkorra izatearen mende. Estatu kideek sistema independenteak ezarri behar dituzte doikuntzen egokitasuna eta eraginkortasuna ikuskatzeko eta konponketa-mekanismo seguru, egoki eta eskuragarriak eskaintzeko. Mekanismo hauek martxan jarri behar dira desgaitasuna duten ikasleek, edo, haien familiek, doikuntzak behar bezala aurreikusi ez direla ikusten dutenean, eta, ondorioz, egora baztertzaila ematen denean.

✱ **Desgaitasuna duten pertsonen beharrezko laguntza ematea, hezkuntza-sistema orokorren esparruan, prestakuntza eraginkorra errazteko:** horrek bermatu beharko luke desgaitasuna duten ikasleek beren potentziala ahalik eta gehien garatu ahal izatea, beraien eskura jarritz, adibidez, irakasleak, eskola-kontseilariak, psikologoak eta behar den prestakuntza eta laguntza ematen duten osasun- eta gizarte-zerbitzuetako bestelako profesionalak, baita bekak eta finantza-baliabideak eskuratzeko aukera ere.

✱ **Erabateko inklusioaren helburuarekin bat etorriz, garapen akademiko eta soziala ahalik eta gehien sustatzen duten inguruneetan laguntza-neurri pertsonalizatuak eta eraginkorrak ematea:** banakako hezkuntza-planak eskaintzeko beharra, ikasle bakoitzarentzat beharrezkoak diren arrazoizko egokitzapenak eta laguntza zehatza zehaztu ahal izateko. Bereizitako inguruneetatik ingurune konbentzionaletara edota irakaskuntza-zikloen artean igarotzen diren ikasleen trantsizio bizipenak kontuan hartu behar dira. Plan horien eraginkortasuna aldi-aldi gainbegiratu eta ebaluatu behar da, ikasleen zuzeneko parte-hartzearekin. Emandako zerbitzuen izaera ikasleekin eta, hala dagokionean, gurasoekin, zaintzaileekin edo prozesuan parte hartzen duten pertsonekin zehaztu behar da, lankidetzan. Aurreikusitako laguntza-neurri guztiak desgaitasuna duten ikasleek eskolatan eta eskolaz kanpoko jardueretan ikaskideekin batera parte hartzeko aukera gehiago izatera bideratu behar dira, bazterketa aukerak murriztuz.

Horren guztiaren ondorioz,
estatuek neurri egokiak
hartu behar dituzte, hala
nola (24.3 artikulua):

- **Ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzat:** braille-sistema; idazkera alternatiboa; komunikazio-modu, -bide eta -formatu alternatiboak; edota, orientazio- eta mugikortasun-trebetasunak errazten dituztenak.
- **Entzumen-desgaitasuna duten pertsonentzat:** zeinu-hizkuntza ikastea eta hizkuntza-identitatea sustatzea.
- **Pertsona itsu, gor eta gor-itsuentzako:** bere eskura hizkuntza, modu eta komunikabide egokiak jartzea.
- **Komunikazio-mugak dituzten ikasleentzat:** komunikabide alternatiboak edo mugak gainditzen lagunduko dutenak.
- **Gizarte-komunikazioko zailtasunak dituzten ikasleentzat:** bikote-lana sustatzea, ikasleen arteko tutoretzak egitea, ingurune egituratu eta aurreikusgarria sortzea, etab.
- **Adimen-desgaitasuna duten ikasleentzat:** material didaktiko eta ikaskuntza-material zehatza, behatzeko/ikusteko eta irakurtzeko erraza, beti ere ikaskuntza-ingurune seguru, lasai eta egituratutakoa.

Hezkuntza inklusiborako eskubidea gauzatzeko, Estatu kideek neurri egokiak hartu behar dituzte administrariak, irakasleak eta irakasle ez diren langileak kontratatzeko, hezkuntza inklusibo guztiaren eraginkortasunez lan egiteko beharrezko ezagutzak dituztenak. Horren barruan sartzen da desgaitasuna duten irakasleen kontratazioan eta etengabeko prestakuntzan inbertitzeko betebeharrak, eta beharrezko laguntza ematea. (24.4 artikulua).

Desgaitasuna duten pertsonen hezkuntza inklusiborako duten eskubideak barne hartzen ditu goimailako hezkuntza, lanbide-heziketa, helduentzako hezkuntza eta bizitza osoko ikaskuntza, diskriminaziorik gabe eta gainerakoen baldintza berdinetan (24.5 artikulua).



06

ESTATU KIDEEN BETEBEHARRAK



01

Hezkuntza inklusiborako eskubidearen oinarritzko ezaugarri guztiak **errespetatzea, babes-
tea eta gauzatzea**: erabilgarritasuna, irisgarritasuna, onargarritasuna eta moldagarritasuna.

- **Errespetatzea**: eskubidea baliatzea oztopatzen duten neurriak saihestea.
- **Babestea**: eskubideaz gozatzea eragozten dieten pertsonen aurkako neurriak hartzea.
- **Gauzatzea**: desgaitasuna duten pertsonen hezkuntzarako eskubideaz gozatzeko aukera eta laguntza emango dieten neurriak hartzea.

02

Eskura dituen baliabide guztiak erabiltzea hezkuntza inklusiborako eskubidea modu progresiboan gauzatzeko. Baldintza hori ez da bateragarria bi irakaskuntza-sistema mantentzearekin: irakaskuntza-sistema orokor bat eta irakaskuntza-sistema bereizi edo berezi bat. Eraginkortasun progresiboak ez ditu betebeharrak horiek aurrez juzgatzen, berehala aplikatzekoak baitira. Horrek esan nahi du, gutxienez, hezkuntzarako eskubidearen alderdi bakoitzaren funtsezko mailak ase behar direla. Horrenbestez, Estatu kideek honako oinarritzko eskubide hauek gauzatu behar dituzte berehala.

- Diskriminaziorik eza hezkuntza-esparru guztietan.
- Arrazoizko doikuntzak, desgaitasuna duten pertsonak hezkuntza sistematik kanpo geratzen ez direla ziurtatzeko. Desgaitasun-arrazoiengatik arrazoizko egokitzapenak ukatzea diskriminazioa da.
- Derrigorrezko eta doako lehen hezkuntza ikasle guztientzat.

03

Inklusioan eta aukera-berdintasunean oinarritzen den **hezkuntza-estrategia nazional** bat ezartzea eta aplikatzea, ikasle guztientzako eta maila guztietako hezkuntza-zerbitzuak barne hartuko dituen.

04

Nazioarteko lankidetzaren esparruan, alde biko eta alde anitzeko lankidetzaren ororen helburua izan behar da kalitatezko hezkuntza inklusibo eta bidezkoa sustatzea, eta, pertsona guztiei, bizitza osoan ikasteko aukera ematea.

07

BESTE ESKUBIDE BATZUEKIKO ZEHARKAKOTASUNA



Desgaitasuna duten pertsonen hezkuntza inklusiborako eskubidea bat dator Konbentzioak aitortutako beste giza eskubide batzuekin:

- Desgaitasun-arrazoiengatik diskriminazio oro debekatu behar da, eta pertsona guztiei babes eraginkorra eman behar zaie, maila berean, diskriminatzeko arrazoia edozein izanda ere. **PERTSONA GUZTIAK LEGEAREN AURREAN BERDIN BABESTEA.**
- Desgaitasuna duten emakumeek eta neskatoek pairatzen dituzten oztopoak identifikatzea eta ezabatzea, genero-indarkeria eta jaso duten hezkuntzagatik gutxietsiak izateko arrazoiak barne. Era berean, neurri zehatzak txertatzea hezkuntza-eskubidea errespetatzeko, eta, jasotzen dituzten diskriminazio, estigma edo aurreiritziak saihesteko. **DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEAK ETA NESKAK.**
- Desgaitasuna duten haurren eskubide guztiak eta garapen holistikoa erabat eta eraginkortasunez baliatzen direla bermatu behar da. **DESGAITASUNA DUTEN HAURREN INTERES GORENAREN BABESA.**
- Neurriak hartu behar dira desgaitasuna duten pertsonekin lotutako estereotipoak, aurreiritziak eta praktika kaltegarrien aurrean kontzientzia hartzeko eta horiei aurre egiteko. **ANIZTASUN-KULTURA SORTZEKO KONTZIENTZIA HARTZEA.**
- Irisgarritasuna ezinbesteko baldintza da desgaitasuna duten pertsonen hezkuntza sisteman parte hartu ahal izan dezaten, bete-betean eta aukera berdintasunean. **IRISGARRITASUN UNIBERTSALA ETA PERTSONA GUZTIENTZAKO DISEINUA HEZKUNTZA INKLUSIBORAKO.**
- Hezkuntza inklusiboak desgaitasuna duten ikasleek gaitasun juridikoa gauzatzean duten konfiantza sustatzen lagun dezan zaintzea, hezkuntzako maila guztietan beharrezko laguntza emanez, besteak beste, eta hala nahi izanez gero, etorkizuneko laguntza-zerbitzuen beharrak murrizteko. **GAITASUN JURIDIKOA GAUZATZEKO HEZKUNTZA INKLUSIBOA.**

- Beharrezko neurri egokiak hartzea desgaitasuna duten pertsonak babesteko eta haien gainerako esplotazioa, indarkeria eta abusu egoerak, sexu-indarkeria barne, eragozteko. **EDOZEIN ESPLITAZIO, INDARKERIA ETA ABUSU MOTA DEBEKATZEA HEZKUNTZA EREMUAN.**
- Hezkuntza inklusiboak desgaitasuna duten pertsonen komunitatean bizitzeko, komunitateko kide izateko eta komunitatean parte hartzeko duten eskubidea aitortzea eskatzen du. **HEZKUNTZA INKLUSIBOA, BIZITZA INDEPENDENTEA IZATEKO ESKUBIDEAREN ADIERAZGARRI.**
- Hezkuntza inklusiboa eraginkorra izan dadin, desgaitasuna duten pertsonen independentziaz mugitzeko aukera izan behar dute, baita mugikortasunerako laguntzak eta laguntza-produktuak arrazoizko prezioan eskuratzeko ere. **MUGIKORTASUNA ETA HEZKUNTZA JASOTZEKO LAGUNTZA-PRODUKTUAK.**
- Desgaitasuna duten pertsonen diskriminaziorik gabe ahalik eta osasun-maila gorena jaso zezake duten eskubidea hezkuntza eskubideaz erabat baliatzeko aukeraren parte da. **OSASUNAK HEZKUNTZA INKLUSIBORAKO ESKUBIDEA EZ URRATZEA.**
- Habilitazio eta errehabilitazio zerbitzuak hezkuntza-sisteman; independentzia, autonomia, duintasunaren errespetua, gaitasun fisiko, mental, sozial eta bokazional osoa eta, bizitzako esparru guztietan, inklusioa eta parte-hartzea bultzatzeko. **HABILITAZIO ETA ERREHABILITAZIOA IKUSPEGI KOMUNITARIOAREKIN, HEZKUNTZA-SISTEMA INKLUSIBO BATEN ESPARRUAN.**
- Kalitatezko hezkuntza inklusiboak lanerako prestatu behar ditu desgaitasuna duten pertsonak, lan-merkatu zabal eta lan-ingurune zabal, inklusibo eta irisgarri batean parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, gaitasunak eta konfiantza eskuratuz. **HEZKUNTZA INKLUSIBOA LAN-MERKATU INKLUSIBO BATERAKO.**
- Bizitza politikoan eta publikoan erabateko parte-hartzea hezkuntza inklusiborako eskubidea gauzatuz bultzatzen da. Ikasle guztientzako ikasketa-planek herritartasunaren gaia eta auto-sustapenerako eta autoordezkapenerako gaitasunak jaso behar dituzte, prozesu politiko eta sozialetan parte hartzeko funtsezko oinarri gisa. **HEZKUNTZA INKLUSIBOA, PARTE-HARTZE POLITIKOA ETA PUBLIKOA SUSTATZEKO.**
- Oztopoak ezabatzea eta irisgarritasuna eta aukera inklusiboen eskuragarritasuna sustatzea, desgaitasuna duten pertsonen gainerako baldintza berberetan parte har dezaten eskola-sistemaren barruan egiten diren jarduerak ludiko edota kirol-jardueretan, baita eskolaz kanpo antolatzen direnetan ere. **BIZITZA KULTURALEAN, JOLAS-JARDUERETAN, AISIALDIAN ETA KIROLEAN PARTE HARTZEKO HEZKUNTZA INKLUSIBOA.**

08

HEZKUNTZA INKLUSIBOAREN ESPARRUAN NEURRIAK APLIKATZEKO GAKOAK



Desgaitasuna duten pertsona guztientzako hezkuntza-sistema inklusiboa aplikatu eta mantentzeko helburuarekin, beharrezkoa da nazio mailan honako neurri hauek hartzea:

- * Desgaitasuna duten pertsonen hezkuntzaren erantzukizuna, maila guztietan, **hezkuntza esparruan eskumena duen erakundearena** izan behar da, ez du gizarte-ongizatearen edo osasunaren arlora mugatu behar.
- * Hezkuntza arloan eskumena duten erakundeek **gainerako erakundeekin inplikatu eta koordinatu behar dute**, bai eta desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzan dituzten erakundeekin, komunikabideekin, gizarte zibileko erakundeekin, tokiko agintariekin, ikasleen elkarte eta federazioekin, unibertsitateekin eta goi-mailako eskolekin eta abarrekin ere.
- * Hezkuntza inklusiboari buruzko legeria giza eskubideetan oinarritutako desgaitasun-ereduan oinarritu behar da.
- * Hezkuntza inklusiborako **lege- eta arau-esparru** zabala eta koordinatua txertatu behar da, aplikazio-egutegi argi eta egokiarekin. Eta lege-haustea ematen direnerako, zigorrak aplikatu behar dira.
- * Legediak **hezkuntza-sektorerako** plana behar du. Plana, desgaitasuna duten pertsonen erakundeekin lankidetzan egingo da, eta, bertan, hezkuntza-sistema inklusiboa ezartzeko prozesua zehaztuko da. Plana hezkuntza inklusiboak gaur egun bizi duen egoeraren azterketa sakona izan behar du oinarri; helburua, aurrera egiteko abiapuntua finkatzea izan behar du.
- * Hezkuntza-eskubidea urratzen den kasuetarako, aplikagarriak diren **salaketa-mekanismoak eta lege-baliabide independenteak**, eraginkorrak, eskuragarriak, gardenak eta seguruak ezarri behar dira.
- * Hezkuntza inklusiboa ez da bateraezina zentro berezietako hezkuntzarekin. Estatu kideek desgaitasuna duten pertsonen **desinstituzionalizazio-prozesu** planifikatu eta egituratu bat hasi behar dute.
- * **Haur-hezkuntzan** egiten diren esku-hartzeak bereziki baliotsuak izan daitezke desgaitasuna duten haurrentzat, hezkuntza inklusiboaz baliatzeko gaitasuna hobetzeko balio baitute.
- * Hezkuntza inklusiboak berariaz dakartzan betebeharrak bideratzeko politikak, planak eta programak formulatzeko beharrezkoak diren **datu desglosatuak** bildu behar dira.

- * **Behar adina finantza- eta giza baliabide** bideratu behar dira hezkuntza-sektoreko plan bat egitera, baita sektore arteko planak egitera ere. Eraginkortasun progresiboaren printzipioari jarraituz, plan hauek hezkuntza inklusiboa aplikatzeko prozesuan lagungarri izan behar dute.
- * **Ingurune bereizietako baliabideak ingurune inklusiboetara transferitu** behar dira.
- * **Irakasle guztiak gaitzeko prozesua** hasi behar da, hezkuntza-ingurune inklusiboetan lan egiteko beharrezkoak diren oinarrizko gaitasunak eta balioak emateko.
- * **Hezkuntza inklusiboak irakasleentzako laguntza- eta baliabide-sistema** bat eskatzen du, hezkuntza-erakundeetako maila guztietan.
- * **Hezkuntza-agintarientzako hezkuntza inklusiborako trebakuntza-jarduerak** egiten eta eskaintzen direla zaindu behar da.
- * Ikasleek egiten dituzten aurrerapenak **ebaluatzeko eta jarraipena egiteko metodoak** behar dira, desgaitasuna duten ikasleek aurre egin beharreko oztopoak kontuan hartuta.
- * **Jarraipen-esparruak** prestatu behar dira egiturazko, prozesuko eta emaitzetako adierazleekin; adierazle bakoitzerako erreferentzia-puntu eta helburu zehatzak jarri behar dira.
- * Hezkuntza inklusiborako eskubideak **hezkuntza-sistema osoa barne hartu** behar du, hau da, hezkuntza publikoa zein pribatua.

